

BERRIGARA

70. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, ekainak 26

**HAURREN
EUSKAL
JAIAN
8 TALDE ETA
300 BAT
NESKA-MUTIKO
IGANDEAN
DANTZAN**

**ELOSUKO
OTABA
JAIETAN
JENDETZA
UGARI ETA
GIRO APARTA**

KIROLAK

**AZKEN
MOMENTUAN
IZAN
ARREN,
BERGARA
PREFERENTERA**

Aupa Bergara!!



GNAZAKITZA • BKIKOLAJE • EIAERU IKESNAK • KIKOL MUNDUKO IKESNAK • LUKAUBITZA ETA
 O TRESNAK • KIROL MUNDUKO TRESNAK • LORAGINTZA ETA NEKAZARITZA • BKIKOLAJE
 KIROL MUNDUKO TRESNAK • LORAGINTZA ETA NEKAZARITZA • BKIKOLAJE
 RESNAK • LORAGINTZA ETA NEKAZARITZA • BKIKOLAJE • ETXEKO TRESNAK
 EK • LORAJE • EKEKO TRESNAK • KIROL MUNDUKO TRESNAK • LORAGINTZA ETA
 O TRESNAK • LORAGINTZA ETA NEKAZARITZA • BKIKOLAJE • ETXEKO TRESNAK
 EK • LORAJE • EKEKO TRESNAK • KIROL MUNDUKO TRESNAK • LORAGINTZA ETA
 OTRESNAK • LORAGINTZA ETA NEKAZARITZA • BKIKOLAJE • ETXEKO TRESNAK
 KIROL MUNDUKO TRESNAK • LORAGINTZA ETA NEKAZARITZA • BKIKOLAJE
 RESNAK • LORAGINTZA ETA NEKAZARITZA • BKIKOLAJE • ETXEKO TRESNAK • KIROL MUNDUKO TRESNAK

IPAR CENTER

*zure aisialdirako
eskeintza bereziak*

San Lorenzo BERGARA

Cristina

Beherapenak

Beherapenak

Alkondarak: 2.900 pzta

Kamisetak: % 30

Praka Bakeroak: 3.900 pzta

Beherapenak

Txaleko bakeroak: 4.400 pzta

Praka motzak 3.450 pzta

Beherapenak

Narruzko txalekoak: 5.900 pzta

Emakumeentzako koloretako prakak: 3.900 pzta

Petoak: 4.900 pzta

3. MAILAKO MODULO PROFESIONALA HARRERAGILEA

AURREINSKRIPZIOA

• **LEKUA:**

Eskola Politeknik
Bulego Nagusiak
Loramendi 4 ARRASATE

• **SARRERA:**

- Hizkuntza batxilerdunak (besterik gabe)
- Bestelako batxilerdunek, hizkuntza froga egin beharko dute

• **EGUNAK:**

Ekainaren 29tik uztailaren 10era

• **ESKAKIZUNAK:**

- Famili-liburuaren fotokopia

• **ORDUTEGIA:**

Goizez: 8:30etatik 12:00etara
Arratsaldez: 14:00 etatik 18:00etara

- Auzokidetasun-ziurtagiria, dagokion Udalak emana.

GOI MAILAKO OSTALARITZA ESKOLA

OÑATI



BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta makotazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Eburne Arenaza
 Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elxepuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifitu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:
 BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Logo gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

BERGARAKO PINTOREAK

Bergarako pintoreak abuztuan Italiako Ortonovon egingo duten erakusketaren berri izan duzue Berrigararen. Baina erakusketa garrantzitsu horrez gain, azken asteetan han eta hemen irabazi dituzten sariengatik nabarmendu dira zenbait pintore bergarar. Abdon Juaristik, Kutxu Otamendik Juan balentziagak irabazi dituzten sarien berri aurreko asteetan izan duzue.

Hori gutxi balitz, aste honetan jokaturako Arrasateko margo lehiaketan Mikel Araiztegi izan genuen onena eta Jon Andoni Urisa-



belek hirugarren saria lortu zuen. Lehiaketa berberean, gazte mailako lehen bi sariak, Xabier Ezkibel eta Gorka Unzuetak jaso zituzten.

Zorionak guztiei eta segi horrela!!

Han eta hemengo lehiaketetan sarituak

ITURRI ONETIK

Asier Garitanok Eibarren jokaturako du datorren urtean

Asier Garitano, azken urteetan txurigorri jantzita ikusi dugun jokalaria bergararrak, 2. mailan Eibar taldearekin jokaturako du datorren urtean. Asierri Athletic-en urtebeteko kontratua geratzen bazaio ere, Bilbon jokatzeko aukerarik izango ez zuela argi utzi zioten Lezamako agintariek. Orain, bilbotarrek Eibar Taldea erosi dutenez, bertan jokatzeko utziko dute bergararra.

ESAN DUTE

"Azken urteetan jazzaldiak eskutatik ihes egin dio Udalari".

GURUTZ LARRAÑAGA
 Donostiako Udaleko Kultur Zinegotzia
 DEIA

"Maglia arrosa lortu ez arren bera jaio zan lurretan / ze maila duen erakutsi du majo euskal bizikletan / denak atzera utzi zituen Arrateko aldapetan. Tourreko gizon haundiak ere jarri ditezke arretan / mailota utzi nahi ez badute Chiocciolin hatzaparretan".

KOLDO ALBERDI
 bertsolaria
 EGUNKARIA

"Joseba Arregi ez da Kultur Kontseilaria, bere gustoko gauzen kontseilaria da. Nork sortu ote du izkutuan kontseilaritza pirata hori?".

EUSEBIO OSA
 Filologoa
 EGUNKARIA

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

ELHAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

Egin edo utzi egiten

Ez dakigu zergatik ez dituen K. Pereirak aurrekontuak bere osotasunean eztabaidatu nahi. Gure aurrean ez litzateke ezer aldatuko, kulturari egingo diogun kritika beste komisioei ere egiteko moduan gaude eta.

Alde batetik prozedura: guretzat konsensu eza aipatu dugunean honetan oinarritu gara: "konsensua ez da guretzat partida batzuen berri ematea, partida horiek elkarrekin erabakitzea baizik". Prozedura honek nahiz eta luzeagoa izan, emaitza aberatsagoak ematen dizkigu.

Bestetik berriz, denbora: PNVk azkenengo aldaketak egin zirenetik, HBk hiru egun eskas eduki zituen eztabaidatzeko. Aurreko legealdiko aurrekontuen eztabaida begiratzen badugu epeak betik askoz zabalagoak izan dira.

Oso modu maltzurrean aipatzen du, HB ez zela Kulturako aurrekontuak eztabaidatu ziren bileran egon, baina ahaztu zaio zergatia eta Udaletxeko arduradunen ganoragabekeria aipatu behar dugu. Bilera ospatu behar zen egun berean abisatu ziguten; horrelako garrantzi handia duen bilerak, gutxienez 48 ordu lehenago abisatu behar denean.

Bestalde, Hezkuntzarako HBko zinegotziari telefonoz edukitako elkarrizketan ez zioten Hezkuntzarako aurrekontuak begiratzeko konturik aipatu,

Kulturakoak baizik. Guzti honi elkarrizketa berean esan ziotena gehitzen badiogu, hurrengo ostiralerako Hezkuntza Batzordea ez zela egingo gairik ez zegoelako alegia, esan beharrean gaude: "HB bilera horretara joan ez bada PNVk ez zuelako formalidaderik eduki izan zela".

Eta Hezkuntzarekin jarraituz, gogoratzen al du K. Pereirak legealdiaren hasieran, Hezkuntzako bileretan, HBk ematen zion garrantzia gai honi, esanez, derrigorrezkoa zela talde bat osatzea erreformaren gaia aztertzeke eta planifikazioari benetan oratzeko?

HBk galdera honi erantzuteko aurkeztu zuen alternatibaren oinarriak hurrengoak ziren:

1.- Talde teknikoa (Zentro ezberdinetako irakasleez osatuta).

2.- Tekniko koordinatzailea. Udalak ordainduta.

PNVak berriz, erdizka baino ez du onartu HBk proposatutakoa, baina okerrean alternatibarik ere ez duela aurkeztu izan da. Beraz aipatutakoa kontutan izanik, Hezkuntzari buruz Udal Gobernuak eduki ditzakeen asmoak zalantzan jartzen ditugu.

Egin edo utzi egiten, planifikazioak herri guztiari zuzenean afektatzen dio eta nork egiten duen baino, egitea da kontua.

Anaje Narbaiza
(Bergarako HBko Hezkuntza Zinegotzia)

Kaletarron euskara zaintzen

"Bertako euskarari" atal ederra beti geratzen naiz irakurtzen. Eta lehen-gunean topo egin nuen halako esaldiakin: "esango deuat etzi".

Garbi dago esukara garbia dela, gramatikala, primeran esanda, baina bertokoa al da? Nik hiri esango deuat? Etxean eta kaleetan hiztun zaharrek nere ustez ez dute holaxe esaten, baizik eta: "esango deustat..." eta neskari bada: "esango deustanat...".

Hau bizkaiera ederrean. Eutsi aditza erro hartuz. Edun hartuz gero, hori beste kontua da, eta euskarak ematen du hortarako jokua, nola ez!


Oker beronez ni ohartu naiz idazle bizkaitar ezagun batzuetan. Aita Onaindian ikusia dut hau, haren itzulpen askotan, baita Kirikinin ere, eta azkenez, irakurri berria dudana Eusebio Erkiagaren nobela batetan.

Nik gogoan dut Euskaltzaindiak zioena, eta betetzen ez dena: "Euskalki eta tokian tokiko hizkerak, landu behar dira, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz".

Beraz, zubiak moztu beharrean hizketen artean, zabaldu egin behar dira, hortik ere baita da euskara batua egiten. Are gehiago, beste iturririk ez "deustat" nik ikusten batuari.

R. G.

Tiira ba!



Uda Kanpaina

Udal Kirol Zerbitzuak astelehenean hasiera emango dio Uda Kanpaina 92ari. Aurten ere, besteak beste, igeriketa, tenisa, raftinga edota parapentea aukeratzeko posibilitatea duzue, horietako batzuk herritik kanpo egingo direlarik. Bazkideek beherapenak izango dituzte eta argibide gehiago nahi izanez gero Kirol Zerbitzura jo dezakezue.

Kintoak


1.937ko kintoek beren anaiarteko eguna ospatuko dute datorren igandean, uztailak 5. Ordubetatik meza entzun eta ondorengo bazkaria Lasa jatetxean egingo dute. Interesatuak 76 28 90 telefonora dei dezakete.

Musika Eskolan hainbat kurtso desagertuko dira irailean

LOGSE Hezkuntza Legearen ondorioz, Bergarako Musika Eskolak hainbat kurtso galduko ditu irailean. Lege honen arabera, Eusko Jaurlaritzak kontserbatorioak eta musika eskolak erabat desberdintzen ditu: kontserbatorioetan musikara profesionalki dedikatu nahi direnek bakarrik ikasiko lukete eta musika eskoletan, berriz, herriko talde musikalak osatzeko asmoz afizioz ikasi nahi dutenak.

Amaitzeko epeak

Zuzendaritza Batzordearen azken bileran musika eskola bezala jarraitzea erabaki zenez, urtez urte hainbat kurtso desagertzen joango dira 92-93 ikasturtetik aurrera. Orainarteko plana amaitzeko aukera dutenek,



1.999ko irailera arte izango dute titulazioa lortzeko epea. Beste zenbaitzuk ere ezin izango dute hutsik egin kurtsoak desagertzen joango direlako eta zenbaitek, eda-deagatik, ezin izango dute aurera jarraitu. Alberto Laskurain zuzendariaren hitzetan, "aldaketak oraindik ez dakizkigu zehatz. Gobernuak burutu

behar duen mapa musikalararen zain gaude, erdi mailako kontserbatorio bezala jarraitzeko aukera baitugu oraindik". Datorren ikasturtean solfeo lehen eta 2. mailak eta instrumentoetako lehen desagertuko dira, plan berria martxan jartzean solfeo eta instrumentoa batera emango direlarik.

Suak San Juanetan

Urteko egunik euritsuenetakoa izan genuen San Juan bezpera. Hala ere, arratsaldeko larritasunak pasatu eta gero, urteroko zitari huts egin gabe, kalean eta baserri ezberdinetan gaitzak desagertarazteko egindako suak izan genituen gaueko protagonistak. Bestetan baino sumeta gutxiago egin ziren asteartean eta gaztetxo eta nagusiek zenbait kasutan gasolina erabili behar izan zuten euriak sua ez emendatzeko. Gau honek udaren etorrera adierazten badu ere, badirudi oraindik ere zertxobait itxaron beharko dugula eguzkia agertu arte.

**MAKAILO**

Makallau
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargal 15

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01

❑ **Olinpiadak**

Bergarako
Olinpiadetarako izena emateko epea igandean, hilak 28, amaituko da. Izena emateko Pol-Pol, Etxagi, Oilagorra, Arrano edota Aldoka Maldoka tabernetara jo dezakezue. Astelehenean, hilak 29, arratsaldeko 7etan Gaztetxean egingo den bilerara talde bakoitzeko ordezkari bat aurkezteko eskatzen da.

❑ **Elgetan jaiak**

Larunbatean, hilak 27, hasiera emango zaie Elgetan aurtengo Azoka Nagusiko jaiak. Goizeko 11etan arrantza lehiaketa jokatu da Asentzian eta 5etan Goiko eta Beheko kaleen arteko futbol partidua. Igandean, berriz, Elgetako I. go Mendi Bizikleta Ibilaldia egingo da goizeko 10etan Plazatik.



Euskal Jaia igandean

Haurren Euskal Jaia-
ren XIX. edizioa ospatuko da Bergaran igandean, hilak 28. Aurten ere Aranzadi Ikastolak eta Mariaren Lagundiak ospakizun egun bikaina prestatu dute, herria dantzariz beteko zaigularik. 280 bat neska-mutiko etortzea espero da, 8 taldek parte hartuko dutelarik: Loramendi (Aretxeabaleta), Txoritxu Alai (Durango), Oberena (Iruñea), Soraluzeko Ametsa, Odon Apraiz (Gasteiz), Salleko (Sestao), Antzuola eta, azkenik, Aranzadi Ikastolak.

Goizeko 9etan talde guztiak Seminarioan bilduko dira; 12etan, Plazan bertsolariak eta alkate txikiaren ongi etorria izango dira eta 12.15etan dantzataldeek kalean zehar beraien dantzak eskeiniko dituzte. Bazkalostean, 4.30etan, kalejiran, Plazara hurbilduko dira berriz 5etan dantzen alardea eskeintzeko; dantza joku koktela ondoren, zezen txikia eta 6.15etan, eta 7etan jaialdiaren amaiera. Egunean zehar txaranga, dultzainero eta trikitalariak egongo dira.

❑ **Saskibaloia**

Datorren denboraldian saskibaloian jokatu nahi duten 1.977-78-79an jaiotako mutikoei larunbatean, hilak 27, goizeko 11tan Kiroldegian egingo den bilerara etortzeko dei egiten zaie.

❑ **Ganberrada**

Larunbat goizean udaleko bulego berriak eta udaltzainen bulegoak ezin izan zituzten zabaldu langileek ezezagun batzuk gauean zerrailetan pegamentu azkarra jarri zutelako. Langileak atzeko atzeko ateetatik sartu behar izan ziren.

Bergarako Atletismoari

buruzko informazioa edota argazkiak dituztenei **BERRIGARRA** rarekin harremanetan jartzeko eskatzen diegu (76 03 97), horren historia argitaratzeko asmoa dugu ta.

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

ANTIA HARATEGIA
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

LXUKLIN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91



Urez gainezka

Egunotan izandako eurijasek kalte aipagarriak eragin dituzte Bergaran ere. Gure herriko zenbait tokitan egoera benetan larria izan zen astearte arratsaldeko lehen orduetan. Deba ibaiak gainezka egin zuen Ibaiondo kalean, Osintxun eta San Prudentzion eta, horrez gain, San Prudentzion bertan eta Bergara eta Soraluze arteko errepidean ere trafikoa eten egin behar izan zen. Kalte haundienak, Ibaiondo kaleko hainbat garajetan izan ziren eta La-sai-Toki Elkartean, esa-

terako, urak mostreadorerraino igo zuen. Udalak kaltetuei Udaletxean kalteak deskribatuz idazki bat, argazki bat eta beste edozein dokumentu zihurtagarri (aseguruarena esaterako) aurkezteko eskatzen die, laguntzak jaso ahal izateko

Ezbeharrrik tamalgarriena, Juan Bautista Elola, Bergarako Udaleko 48 urteko delineanteak jasan zuen. Bergaratik Ibarra, etxera bidean, Ormaiztegin urak hartu zuen. eta bihotzekoak jota, eriteixera zeramatela hil egin zen. Goian bego.

Txinpartak

✓ **Kanpoko igerilekuen** zabaltzea igandera arte, hilak 28, atzeratu da eguraldiagatik.

✓ **Martin Arriaranek** irabazi zuen larunbatean Nahikarin jokaturako Xake Txapelketa, finalean Jon Suinagari irabazi ondoren.

✓ **Musika Eskolak** datorren ikasturterako aurrematrikula epea zabaldu du ikasle berri zein lehenagokoentzat.

✓ **Selektibitate** azterketa egin zuten 84 ikasleetatik, 77 ikaslek gainditu egin dute azterketa eta gainontzeko zazpiek irailean izango dute aprobatzeko aukera berri bat.

✓ **Euskadiko Eskalada Txapelketa** jokaturako da Bergaran uztailearen 4an. Parte hartzeko beharrezkoa da 500 pta. ordaindu eta federatua egotea. Interesatuak Kirol Zerbitzura jo dezakezue.

✓ **Nagorek** 22 eta 15 irabazi zion ostiralean Cocari Elgetako Afizionatuentzako Lau t' erdi barruko txapelketan.

✓ **Soladore ikastaroa** (zolan axuleiuk, baldosak...etab. jartzen ikasteko) antolatu du Udalak uztailetik abendura bitartean eta ez soldadore ikastaroa, akats batengatik, aurreko astean jarri genuen bezala.

**JOSE
LUIS
eta
MIKEL**

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

Siaska

Dena zure haurrarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**TOKI-EDER
Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57


Elosuko Otaba jaietan giro izugarria

Joan zen astebukaeran ospatutako Elosuko Otaba Jaietan inoiz baino jende gehiago izan zen.

Larunbat gaueko Bertso Jaialdia, igande goizean jokatu ziren Otaba Pelota Txapelketako finalak eta arratsaldean jokatutako Ardi Txakurren Txapelketa izan ziren ospakizunik nabarmenenak. Astelehenean, ostera, goizaldera arte jardun zuten elosuarrek jai giroan.

Bertsolari onentsuenak

Larunbat gauean, Jon Sarasua, Sebastian Lizaso,



Muguruza aniaek Lete eta Madinabeitiari irabazi eta Otaba Pelota Txapelketa berenganatu zuten.

Gorrotxategi, Euzkitze, Peña eta Egaña eskuintako bertso saioa ikustera 500 bat lagun bildu ziren. Aipatzekoa da saio oste-

an, Jon Sarasua kitarra eskuetan eta Egaña lagun zuela, koplak kantatzen aritu zirela, bildutakoen artean barre algara ugari sortaraziz.

Otaba Pelota Txapelketa

Igande goizean, berriz, azken asteetan jokatu den Pelota Txapelketako finalak izan ziren. Eskuz-eskukoan Zapirainek 18 eta 15 irabazi zion Etxanizi. Eskuz-binakakoan, bestalde, kadete mailan Muruamendiaraz eta Osa, 18 eta 14 nagusitu ziren Arrieta eta Orbearen aurka. Eta beterano-

en mailan, Muguruza aniaiek txapelkun geratu ziren, Madinabeitia eta Leteri 22 eta 20 irabazi ondoren. Auzoko pelotari gazte onenaren saria Ander Muguruzak eraman zuen eta beterano onenaren saria, berriz, Madinabeitiak.

Ardi Txakurrak

Elosuko zelaietan jokatutako Artzai Txakurren Txapelketan azkoitiarrak izan ziren onenak: Zubizarretaren *Beltza* izan zen onena. Bigarren, Larrañagaren *Lagun* sailkatu zen eta hirugarren, Alkortaren *Lista*.



REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

GESTORIA EGUREN

M. Pilar Eguren Diez
Kolejatuakoko administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

ZINEA



ANALISIS FINAL

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30
eta 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30
eta 22.15.
Astelehena: 19.30.

▼▼ **Phil Joanouk** zuzendurik, **Richard Gere** sikiatraren paperean **Kim Basinger** eta **Uma Thurman**ekin joku arriskutsu batean arituko da. Azkenean, San Francisco hirian kokatutako tentsioz beteriko filme honetan, sedukzioak, hildako bat eta... hiriak berak dituen sekretuak aurkezten zaizkigu.

AUKERAN



▼▼ **Udal Musika Bandaren** kontzertua **igandean** eguerdiko 12.00etan Espoloian. Programa: *Or konpon* martxa (M. G. Bastida), *El Príncipe Igor* guda dantzak (A. Borodin), *San Marcial* euskal estanak (M. G. Bastida) eta *Cinco minutos con Cole Porter* (Cole Porter).

ERAKUSKETAK

• **Ignacio Moreno** bergarar pintorearen erakusketa Kultur Etxean, asteartera arte.

KONTZERTUAK

• **Tapia ta Leturia**, Antzuolan larunbatean gaueko 22.30etan **Kale Barren** auzoan.

• **Musika Eskolako** haurren emanaldia, **astelehenean** arratsaldeko 19.00etan **Zabalotegiko** Dorrepeko Antzokian.

FARMAZIAK

- **Larunbata 27:** Mozos/Amezua (Arrasaten gauez).
- **Igandea 28:** Mozos/Ruiz.
- **Astelehena 29:** Camacho/Morales.
- **Asteartea 30:** Puy/Azkoaga.
- **Asteazkena 1:** Guallar.
- **Osteguna 2:** Estella.
- **Ostirala 3:** Mozos.

OGIA

• **Igandea 28:** Konde Panaderokua.

ONGI ETORRI
Jatetxea

Tfnoa: 76 63 49,
ANTZUOLA

Kiroldegiko
Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

Aspalditxoko gertakizun mingarri bat dugu bonako bau. Gerra zibilaren bukaeran, batez ere leben bilabeteetan, jendetza baundiak biburtu ziren beren berrietara, bai gartzeletatik, bai batailoi zigortuetatik.

Bildu dudan sortatxotik...

Kanpotik guda egin zuten langileek ez zuten eskubiderik aurreko lantokietan jarraitzeko. Bertan geldituak eta guda alde honetatik bete zutenek, lehen aukera. Lantokietako ugazabak ere, kezkarik asko izan zuten agindu hau betetzera.

Egoera honek sortutako emaitza garbi ikusten zen, jende asko kalean lan gabe. Beste batzuk saskitxoan bazkaria harturik goiztar lanera: Plaentxi, Eibar, Oñati, bakoitza ahal zuten tokira.

Horretariko hiru mutil bergarar, goizean, zazpietako trenan hartu eta Oñatira joaten ziren kontratista famoso baten menpera. Etxegintza zuten zeregina. Lan gogorra, beraz, baina sasoi oneko

mutilak, eragozpen guztiei eusteko ahalmenez.

Larunbat gauetan, betiko euren egontokian batzen ziren, mantxartxo bana eginez. Bertara hurbiltzen zan langabeko lagun bat. Osasun gutxi zuen honenek, eta, beldur zen lan gogorretan sartzeko. Bere lagunak, gogoberotu nahian, "*etorri geugaz, emango deusk lana geure ugazabak*", esaten zioten. Gizagai-soak, ahalmen gehiegi ez zeukan lanerako, baina han irabazi zitzakeen diru apurrak benetan beharrezkoak zituena.

Hiru lagun haiekin batera heldu zen Oñatira lan eske. Kontratatik ontzat hartu ere bai, bere eskabidea. Baietza eman ondoren, eskainizion "Legazpiko Patri-


ziok" egiten zituen pala astun haietako bat, ohartuaz morteroa nahastu behar zuela. Kontratatik, haseratik itxura txarra hartu zionez, heldu zan langile berriaren ingurura esanez, "*dirudienez, gerri gogorrekoa zera zu, ezin duzu bigundu gebiagorik?*"

Ez jauna! erantzun zion langileak. Jaioztatik, hezur madarikatu bat dut goisabelean eta ezin izaten naiz makurtu behar bezala.

Joino, esan zuen kontratatik. Etorri zaren bidetik itzuli beharko duzu, eta hezur hori izkutatu arte ez zaitez bihurtu.

Horrela ziren behin bateko kontuak; latzak, zalantzarik gabe. Orain, oraingoak, nire ustez, askoz hobek. Hala behar ere, noski.

HEZURRA SABELEAN



Antonio URZELAI

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

Bazkariak
eta
afariak

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

Kailash

Zentro Esoterikoa

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean diplomatutako
profesionalak.

•†arot-a •Hipnosia •Erresonantzia
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

Tximak

Ileapaindegia

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

**MINER Ardo onak,
ardoa jakina**

Billegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

San Martzial

Jaiak eta horien Erregeak (I)



San Martzialgo ermita. Hemendik astebetera, San Martzialgo erromeria dela eta jendez gainezka ikusiko dugu.

Santamañako bigarren Patroiak bere aldare nagusian ezker-eskubi dauden Abdon eta Senen Deunak dira. Horiek bazeukaten Kofradia bat ere, eta honen bizkar egoten zen San Martzialgo jaien eraketa. Urte bat lehenago, uztailaren 30-ean, Kofradiak hurrengo jaien Erregeak izendatzen zituen. San Martzialgo auzoan urte horretan ezkonduko parejarik bazeagoen hura zen aukeratu; gainerakoan Santamañan azkenik egindakoa. Horiek, Erregeari zegozkien jantziekin, jaien buru izaten ziren.

San Martzialgo ermitaren ondoan "Erregetxe" dago. Behin errege bat egon omen zen bertan, eta hortik hartu omen zuen bere izena. Nik gehiago uste dut jaien Erregeiangandik datorkio gainera eta berez, San Martzialgo seroren etxea izateko itxura guztiak dauka.

tzen dira San Martzialera, ondoren meza, erregetxean prestatutako txokolata ogiarekin eta ura boladuekin, ardoz betetako zaragia gurdian, alkatea eta gainerako agintariak, meza nagusia, aurrekua, bazkaria, jaiak, geroko jetxialdia... Lehenago, otordu aurretik, apaizaren aurrean pasatzen ziren, banaka San Martzialgo eleizpean belaunikatuz, eta haren estolari mun emanetz lamosna bat uzten zuten.

Gure gurasoen garaietan inguruko herrietatik ere jende asko etortzen omen zen, eta hamar edaritegi edo taberna ipintzen omen ziren. Esaten denez, San Martzialgoa pareja berriak sortzeko eguna izaten omen zen. Unamuno idazle ospetsuak, Bergarako baten semea bera, 1.888an jai honi atalburu oso bat eskeini zion "De mi Pais" bere liburuan.

Goizean goiz Santamañatik "letaniak" ater-

Imanol Sorondo

Zumelaga
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

**MATXIATEGI
TABERNA**

• Kafea • Kazuelatxoak • Afariak aurrez enkargaturik •
Olagarroa Galizia erara • Galiziara joateko txartel salmenta (GAESA)
Tfnoa: 76 11 86

ileapaindegia
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

Amillaga 1
(B pabilola)
BERGARA

- Iturkintza
- Berogintza
- Gasa

Tfnoa:
76 28 04

Bergarako Taun Taun Txontxongilo taldearen azken lanaren euskarazko bertsioaren estreinaldia erabat arrakastatsua gertatu da. Herritarren onspena jaso ondoren Hegoamerikarantz abiatuko dira datorren astean. Venezuela eta Colombiatik zehar bi hilabete emango dute "Bi Kate" eta "Lam eta lorea" lanak antzetzten.

Taun-Taun

panpinak gizaki bihurtzen



Teknika ezberdinak lantzen

Taun-Taunekoek orain arte landu dituzten lau ikuskizunetan, teknika ezberdinak erabili dituzte, panpinak manipulaterakoan. Lehenengoan harietatik zintzilikatutako panpinak erabili bazituzten ere, bigarrenean eta hirugarrenean **Bunraku** (muñekoa manipulatu dagoen pertsona, panpiñaren bat eginda lan egitea) izenekoarekin lan egin zuten, eta "**Taun-Taun Show**" izeneko azkeneko lanean, aurrekoen gain teleñeko ospetsuetan erabiltzen den **Moppet** teknika erabili dute.

Spitting Image

Britainia Haundiko telebistako **Spitting Image** umorezko saio ospetsuaren antzekoa Euskal Herrian egiteko aukera presentatu zitzaizen Taun-Taunekoei. Horregatik Parisen eta Charlevillen teknika ikasten eman zuten hilabete inguru. Hala ere, uda partean Hegoameriketatik zehar eramango dituzten bidaian antzestuko dituzten "**Bi Kate**" eta "**Lam eta lorea**" ikuskizunak eta udazkenetik aurrera Euskal Herrian antzetzeko asmotan dabiltzan "**Taun-Taun Sow**" lana dira eskuartean daukaten egitasmorik garrantzitsuenak.



laun nirenean



Hegoameriketara

Iñaki Mata, Pili García, Nartxi Azkargorta eta Karmele Pérez, Taun-Tauneko kideak, Hegoamerikarantz joango zaizkigu datorren astean.

Eduardo Dimauro venezuelar titiriteroak **Bilboko Nazioarteko Txontxongilo Jaialdian** ikusi zituen iaz eta Venezuelara joateko gonbitea luzatu zien. Eskeintza horri erantzunez bi hilabete emango dute Venezuela eta Kolonbiatik zehar, besteak beste, Lima, Ciudad Guayana, Merida, eta Maracaibo bisitatuz.



Lau muntaiak

- **Izuikara haripean** (1.988).

Woody Allenen liburu batetatik ateratako ipuinetan oinarritutako umore beltzeko *sketch*ak tartekatuz osatutako lana.

- **Lam eta lorea** (1.989).

Antieroi eta antiprintzesak protagonista dituen istorioa.

- **Bi kate** (1.990).

Zahar bikote baten oroitzenak dira istorioaren haria.

- **Taun-Taun Show** (1.992).

20-ko hamarkadaren Estatu Batuetan girotuta, ixtera doan kabaret baten asken gaua.



Talde lana

"Taun-Taun Show" jendaurrera eramateko lanez honako hauek arduratu dira: Pili García, Karmele Pérez eta Nartxi Azkargorta, panpinen manipulazioaz eta interpretazioaz, Iñaki Mata alde teknikoaz, Carlos Odriozola eta Itxaso Azkarate zuzendaritzaz, Xabier Labaien musikaz eta Riki Azkargorta muntaia iragartzen duen kartelaz.

Musika Antzuolako "Kalegoi" estudioan grabatua da. Euskarazko bertsiorako testuaren itzulpena Juan Martin Elempuruk egin du.

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

JULIA
Frutadenda

Matxiategi 4 Behea BERGARA

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den gutxia*

Ibargal 10,
Tfnoa: 76 38 32

Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



ETXE AUNDI

Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

FS

oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

M. OSINAGA

Etxeko
erreformak

Sukaldeko
altzariak

Espalola z/g
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

San Juan gaua ospatzeko ohiturarik baduzu?



Iban Osa
17 urte, ikaslea

Lehen sumetak egiten genituen, baina orain ez. Orain, suak ikustera irtetzen naiz, besterik ez.




Amaia Olano
16 urte, ikaslea

Gauean kalera irtetzen naiz lagunekin sumetak ikustera.



Manoli Barrenetxea
34 urte, etxeakoandrea


Suak ikustera irtetzen naiz baina besterik ez. Lehen jende gehiago irtetzen zela uste dut.



Pablo Zabaljauregi
70 urte, jubilatua

Gaztetan Hondartzatik arramak ekarri eta gaur Irizar Paseabidea dagoen tokian sumetak egiten genituen.

SANTOS IRRATI - TB



TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako altzariak
Argiztapenak

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA



Haurren Egunak 19 urte

Orain dela 19 urte, nik dantzari txiki bezala bizi izan nuen egun hau. Esan didatenez, Plazentziatik etorri ziren Fernando Lasa eta beste lagun pare bat Haurren Eguna nola antolatzen zen azaltzera. Garai hartan Bergaran, Moises Azpiakuz nesken dantza-taldea zeukan eta Jabier Mendizabal antolaketa lanetan hasi zen. Gerora, berak jarraituko zuen dantza-taldearekin.

Orduak hona aldaketa haundiak izan dira bizitzako arlo guztietan eta Haurren Eguna ere ondotoxo aldatu da. Garai batetan, izan zen Bergarara mila eta piku dantzari (50 dantzari 22 talde) etorri zen urterik ere. Gaur egunean, berriz, 400en bat etortzen dira. Orduan gainera, dantzariei bazkaltzen emateko, etxeak sobra izaten ziren. Orain arazoak izaten ditugu haurrak etxeetan sartzeko.

Gaur ez da ez herritarren ez dantzarien artean lehen besteko irrikaz itxaroten Haurren Eguna, orain ez du lehenagoko ilusiorik pizten.

Hala eta guztiz ere, hor dihardugu jotake lanean, egun eder hau galdu ez dadin, eta ezin ditut aipatu gabe utzi horretarako benetako laguntza eskaintzen diguten guztiak: kanpoko eta herriko dantzariak, Bergarako elkarteak, dantzariak etxeetan hartzen dituzten familia guztiak, Udala... eta azken urteetan antolaketa-lanetan diharduen lantalde txiki baina tinkoko partaideak. Guztiei eskerrak.

Eta luzaroan iraun dezala, baina txispa gehitxoago-arekin.

Amaia Madinabeitia



Plan Estratejikoak

Hil honen hasieran eztabaidatu da Euskal Legebiltzarrean Gobernuak prestatutako Euskal Baserrialdeko Plan Estratejikoak deritzona. Plan horren borradorea jaso bezain azkar ikusi zen akats asko zituela, batipat benetako plan batek behar dituen diagnostikoa, helburuak finkatzea eta horiek lortzeko behar diren baliabideak (epeak, aurrekontuak, lan banaketak...) zehaztea falta zitzaioela. Hala ere, baserriarren sindikatutik ahalegin handia egin zen bere alderdi onak ateratzen, osatu eta hobetzeko saiakera berezi bat egin zelarik, nekazari eta teknikariek elkar-lanean.

Pozgarri da beraz ikustea, Sindikatuaren proposamen horiek partiduen aldetik izan duten harrera guztiz ona, eta lortu dela lehenengo aldiz nekazarien gaia, gai bakar bezela Legebiltzarrean aztertzea.

Eta, nahi beste zehaztasun ez lortu arren, onartu da nekazarien egungo helburu nagusiak lortu, aurrekontuak zehaztu eta lanok zeinek burutu behar dituen garbitzeko, Gobernuari epe motz batzuk jarri ditzala agintzea.

Era berean, zenbait gai garrantzitsu burutzeko epeak jarriak daude: Lurraren Antolaketerako Planak eta Basogintza Plana egiteko, Euskal Herriko Produktuen marka jenerikoa eta bertako produktu gehienentzako labelaren baliabilitatea aztertzeko,...

Eta garrantzitsuena, guzti hauek burutzeko, nekazarien ordezkarien, hau da sindikatuaren partehartze eta kontsentsorik haundiena bilatu behar dela ere onartua gelditu dela.

Maite Aristegi

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27



IRAKASLE ESKOLA
Eskoriatza
Gipuzkoa

Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epa
zabalik dagoela.

ESPEZIALITATEAK:

- Hur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

BIGARREN DIPLOMATURAK:

- Hur-eskola
- Ingeles filologia

Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40
Ordutegia: 9-13

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**


- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko botelatikia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxe: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



☐ Gazteak kantuan

Joan den asteartean hasi ziren Zabalotegipeko aretoan osatu berri den Orfeoi Gaztearen entsaiuak. **Aintzane Aranaren** zuzendaritzapean, 13 urtetik 18 urtera bitarteko 40 bat gazte bildu ziren Orfeoiaren harrobia izan nahi duen abesbatza honetan *gogor lanean*. Hasteko, udazkenerako iragarri dute beren estreinaldia eta oraindik ere prest daude jende gehiago hartzeko, batez ere mutilak falta dira ta. Badakizue, asteartero, 7 t'erdietan Zabalotegin...

☐ Kurtsoari agur

Kurtsoaren amaiera zelebratzeko O.H.O.ko 200 ikasle inguru bildu ziren larunbatean Kiroldegian izandako **Udal Kirol Eskolen Jaian**. Neska-mutilek era guztietako kiroletan proba egiteko aukera izan zuten monitorean laguntzaz eta, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, festa guztiz arrakastatsua izan zen. Gainera, opari bana jaso zuten parte hartu zuten guztiek, etxera pozaren pozez... eta zertxobait nekatuta bueltatu zirelarik. Hemendik irailera badute bai oraindik kirolean jarduteko aukera!!!



SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
Tfnoa: Biltegikoa: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09



❑ **Elorriotarrak txapeldun**

Txopitea eta Gezala elorriotarrak izan ziren, iaz bezala, garaile Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako II. Pala Txapelketan. Igandean Osintxun jokaturako finalean 35 eta 21eko emaitzarekin nagusitu zitzaizkien **Peñalba eta Garmendiak** osatutako bikoteari eta, ohiturari jarraituz, beraien jantzi zituzten txapeldunei dagozkien txapelak. Ea datorren urtean bergarako bikoteak finago aritzen diren...



❑ **Jaunartzeak Osintxun**

Herrian maiatzean izan baziren ere, Osintxuko auzoari igandean tokatu zitzaion auzokideen jaunartzeak ospatzea. Argazkian zintzo-zintzo agertzen diren **Ana Goenaga, Aroa Agirrezabal, Iker Sanchez** eta **Arkaltz Amenabarrek** beraien lehen jaunartzea egin zuten, eta familikoekin batera egun ederra pasatuko zutelakoan gaude. Azken urteotan eman den jeitsieraren ondorioz, 4 gaztetxoek txanda izan da aurtan. Dena den, asko edo gutxi izan, egun berezia izaten da parte hartzen dutenentzat. Galdetu bestela argazkikoei...


Zertan dibardute ba?

AGIRRE-MURUAMENDIARAZ



Eduardo Murua eta Amaia Agirre bikote bergararrak bigarren postua lortu zuen igandean Seguran jokaturako Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketan, zilarrezko domina eta 40.000 pta. eskuratuz.

ARITZ BERRAONDO



16 urteko antzuolar honek ostiralean Elgetako Lau t'erdiko Pelota Txapelketa irabazi zuen kadete mailan ostiraleko finalean Otaegi azkoitiarrari 18 eta 9 irabazi ondoren, 1 eta 6 galtzen joan bazen ere.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargaral 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH

VITA

UNIBER

CAUDAL



HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Umore giroan

Arbola danak ebagi

"Asta Zarra", Felix Legarren lagun aundixan. "Asta", baiña, udabarri eta udazken dantetan gaixorik jausten zan.

Egun baten, gaixorik egon ondoren, batu dira Eibarko Kalbetongo "Bar Bodega"n Felix eta "Asta".

- Ba ator "Asta"?
- Bai, orrixan urteeran eta jausterakuan, txarto ibiltzen nok.

Ta "Felix Legarre" k:

- Nik bajaukat orrentzat erremedixua.
- Ze erremedixo?
- Arbola guztiak ebagi.

* * *

Esnia ardaugustuakin

Beste egun baten, badagoz berbetan "Felix Legarre" eta "Kaporala".

- I, Kaporala, Santañes-en zer jaten dozue?

- Danetik. Normala. Gaifera ganaua be bajaukau.

- Zer jateko emoten detsazue ganaduari?

- Ara ba: bedarra, birriña eta ardauga be bai.

Felixen komentariuxia:
- Ik daukak suertia, Kaporala! Esnia be ardaugustuakin eraten dok.

* * *

Esango deuat etzi

"Felix Legarre" naiko "astronomua" zan zer egualdi egingo zeban jakiten. Beñ batian, etorri jakon bat adarra jo naixan:

- Zu, Felix, bixar ze denpora eingo dau?

Eta Felixek:

- Esango deuat etzi.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Noiztik ote dator hortzak garbitzeko obitura?

Egun, gure zibilizazioan, behinik behin, hortzak eta haginak garbitzeko ohitura oso erroturik dago. Egunean hainbat aldiz egiten den garbiketa horretarako komenigarriak diren hornikuntzen marka komertzialek zerrenda oparo bat (eskuzko zepiloak edo mekanikoak, dentirfikoak...) osatzen dute eta beraien artean, kontsumitzaileen arreta eskuratzeko, gogor lehiatzen dute telebista, aldizkari eta abarretan ikusi ohi dugunez.

Hortzak garbitzeko ohitura guk egiten dugun moduan berria da. Hala ere, oker legoke pentsatzen duena antzinaan, gainera oso antzinaan, garbitzeko ohiturarik ez zegoela. Badira erreferentzi etnografikoak ohitura horiek "primitiboan" artean aipatzen dituztenak. Baita erreferentzi klasikoak ere: Strabon-en arabera, erromatar garaian, Iberiar Penintsulako ifarraldeko herriek eskuez gain hortzak ere txisaz garbitzen edo igurzten omen zituzten. Horien artean, agian, gure arbaso zaharrak ote zeuden?

Hala ere badira zenbait herri horrelako ohiturarik ez izan arren, beren dentizioa sendo mantentzen dutenak. Izan ere,

hortzen osasunak zerikusi handia du elikadura edo janariarekin. Zer jaten duzun, halako hortz-haginen osasuna.

Ez hain urruti geratzen zaigun Historiaurrean zer gertzen zen? Aztarnategietan ez da zepilorik eta horrelako gauzarik aurkitzen. Baina askotan aurkitzen dira gizakien hortzak, batez ere, Brontze-arako hilobi kolektiboak izan ziren kobazuloetan, orain dela 3.500 urte gutxi gora behera. Hau da Aretxabaletan dagoen Iruaxpe I kobazuloaren kasua. Bertan jasotako 435 hortz eta haginaren ikerketa burutu eta gero gaur egun hain zabaldua dagoen kariesen arrastorik ez zen aurkitu. Antzerako ondorioa atera zen Oñatiko Urtao II kobazuloan aurkituriko hortz-haginekin.

Gizaki zahar haien hortzak garbitzeko ohituraz ezin dugu ezer jakin. Eta baldin eta garbitzen bazituzten ere, badirudi bere hortzen egoera onak (karies eza) elikatze ohiturekin zerikusi handiagoa zuela garbitzeko praktikekin baino.

Xabier Larrañaga


EDEL tapizdenda

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



UNEDeko idazkaritzakoak

UNEDeko idazkaritzako langileek irabazi dute aste honetan BONOFOTOko saria. 10.000 pzta eman diegu sari modura berak jarritako erantzuna, argazkian agertzen zen eskulturaren egilea Juan Balentziaga zela, zuzena zelako. ZORIONAK!!

Nortzu dira Bergaran izan genituen hiru txirrindulari frantses hauen izenak eta nor heldu zen hiruretatik lehenengo Bergarako helmugara?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

MEMESA




Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!



Sukaide eta bainugelarako mobleria
Diselnua eta goimallako kaitatea
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS



Teknologia eta diselnua
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEekipoak
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak
Alfonbrak. leiho-oihal, narruzko sofak,
tapizak,...
apalngarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51

LARRAÑAGA



Artekale 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA

Autogidarien Eskola

Bergarak preferentera igotzea lortu zuen igandean

Arregi entrenatzaileak ez du datorren denboraldian jarraituko

Kostata izan bazen ere, Bergarak preferentera igotzea lortu zuen igandean Agorrosinen Roteta taldeari penaltietan irabazi ondoren. Partiduko 90 minutuetan Bergarak Rotetak joaneko partidutik zekarren aldea berdindu zuen 2 eta 0 irabaziz.

Lehen zatia hutsnako berdinketarekin amaitu zen; bigarrenan, eta Agorrosinen bildutako jendetzaren laguntzaz, Bergara garaipenaren bila irten zen. Penalti bati esker lortu zuen Azkaratek lehen gola eta, partidua amaitzeko 15 minutu falta zirela, Mendozak sartu zuen bigarrena. Prorrogan aldaketarik izan ezenez, penaltietan nagusitu ziren bergararrak; Rotetak bitan huts egin zuen eta Bergarak baten. Arregik jaurtitutako azken penaltiaren ondoren, jendeak zelaira salto egin zuen... Eromena...



Bide okerretik

Alex Garitano presidenteak eta Josetxo Zabaleta diruzainak Zuzendari Batzordearen izenean hartutako azken erabakiak mina eta haserrea sortarazi du elkarteko zenbait kiderengan. Arregi eta Juanjo Arizmendi, entrenatzaile eta delegatu izandakoek, eta elkarteko sailetako zenbait ordezkari esaterako, euren desadostasuna azaldu dute Bergara K.E.k hartu nahi duen bidearekin.

Orainarte batipat bertako jokalariekin aritu bada ere, datorren denboraldian kanpokoak fitxatu nahi dira. Honek elkarteko beste sailei ematen zaien dirulaguntza murriztea ekarriko du eta beren etorkizunaz kezkatu dira guztiak.

ALEX GARITANO, presidentea

"Egia esan, denboraldi hasieran beste era batera igotzea espero genuen, preferentera txapeldun bezala heltzea zen gure helburua. datorren denboraldian preferentean ibiltzeko gauzak aldatu beharko dira eta entrenatzailea aldatzea beharrezkoa ikusten genuen. Taldean egin beharreko aldaketak entrenadore berriak erabakiko ditu".

J.L. ARREGI, entrenatzaile ohia

"Ez nuen zesea espero eta nahiko dezepzionaturik nago, orain 15 egun, Lazkaoren kontra jokatu genuenean datorren denboraldiari begira fitxaje posibleak ikusten joateko esan bait zidaten. Sorpresa bat izan da niretzat. Laupabost fitxajerekin preferentean erditik gora ibiltzeko posibilitateak ikusten nituen. Ilusio handia neukan baina..."

ELADIO
OINETAKOAK
Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



Orain dela 31 urtetako C.D. Bergara

Bergara kategoriaz igo berri den honetan, Erretratu Zaharrean geure omenalditxoa eskeini nahi izan diogu. Hori dela eta, zenbaiten ustez Bergarak izan zuen ekiporik onena dakargu. Orain dela 31 urte Gipuzkoako Kopan txapeldun gertatutakoa da.

Legazpiko Ilintxaren aurka Beasainen jokatu eta 3 eta 1 irabazi zuten bergararrek.

Erretratua ere bertan Beasainen ateratakoa da.

Hauek dira fotografixako hamabost gizonak:

Zutik: Sebitas, Mateo, Sabas, Alzelai (entrenatzailea), Aranburu, Arregi, Mujika eta Egaña.

Makurtuta: Lizarzaburu, Juanito Arriaran, Arenaza, Berezibar eta Agirre.

Estepan Plazaola

Argazkia: Andres Alzelai.

MARKIEGI Automobilak

**Automobil eta kamioien
karrozeria**

Lelzeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA



DENA 100

pzta.tan

Ireki berria

SIMON ARRIETA 3an

ETXEBIZITZA

Etxebizitza salgai Arizamendi 19an. 3 gela, saloia, sukaldea eta bi bainugela. Amueblatua eta gasaren instalazioa eginda. ☎ 76 10 10.

Pisua salgai Bidekuru-tzetan. (5.000.000) ☎ 76 09 36.

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzen ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Apartamentua alokatzen da (garaje eta guzti) **Jakan.** ☎ 76 43 98.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

SALDU-EROSI

Mendiko bizikletaren XT.92 freno beltzak salgai. ☎ 76 52 31 (gaeuz).

Ecler Mac 2 markako musika nahasketarako mahaia salgai (2 lerro eta 4 plater). ☎ 76 38 61.

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak tekilista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadilsko erdiatomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

2 CV aren erroberak salgai (oso merke). ☎ 76 15 07 (Aniotz).

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Minox CT argazkikamara, flash eta guzti, salgai. Berri-berria. ☎ 76 52 31.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Seter txakurkumak salgai ☎ 76 35 01 (gaeuz).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

6-10 urteko haur batentzat mendiko bizikleta salgai (BH marka). ☎ 76 56 97.

Elektragailuak (garbigailua, hozgailua...) **erosiko nituzke** ☎ 76 17 85.

LANA

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Taberna alokatzen da ☎ 76 53 73.

Arratsaldetan gaixoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

Bajua jotzen ikasteko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 17 85.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Mutil batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. marraztuko lituzke ☎ 76 25 59.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Hildakoak

Luis Perez Berasategi

ekainaren 22an, 82 urte

Juan Bautista Elola

ekainaren 23an, 48 urte

Jaiotakoak

Mikel Garcia Urbina

ekainaren 17an

German Unamuno Martnez

ekainaren 21ean

AUTOPULLMANS ARABA**Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein

tokitara!!

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA